

# AHT GELDITU! NAFARROAREN PRENTSA OHARRA/NOTA DE PRENSA DE AHT GELDITU! DE NAVARRA



## ESTATU ESPAINIARREKO AHT SAREARI BESTE ZARTAKO BAT

Europako Kontu Auzitegiak AHTari oro har eta bereziki Euskal Y-ari egindako kontrako bi txostenen ondoren, Espainiako erakunde batek, **AIREF (Erantzukizun Fiskaleko Agintaritza Independentea)**, oraingoan emandako zartada ikaragarri hau iritsi da.

Erakunde horrek ohartarazi duenez, Espainiako estatuko AHT lineak munduko abiadura handiko sare zabalena dira, Txinaren ondoren, eta, aldi berean, erabilera-intentsitate txikienetakoa dute. Gainera, adierazi du AHTa eraikitzearekin ez dela ikusten kohesio sozial handiagorik, lurralde-desberdintasunak areagotzen direla eta sortzen dituen onura sozialek, ezdeusak edo antzemanekin, ez dituztela konpentsatzen eraikuntzako kostu finko izugarriak. Horrez gain, salatu du herritarren mugikortasun-beharrak kontuan hartu gabe egiten ari direla, bidaiari potentzialen zifrak puztu direla eta eraikuntza-kostuak beherantz aurreikusi direla. Amaitzeko, kritikatzeko du trenaren erabiltzaileen % 90ek baino gehiagok aldiriko zerbitzuak erabiltzen dituztela, eta, aldi berean, urte hauetan guztietan oso inbertsio txikia egin dutela aldiriko sarea hobetzeko. Kasu askotan, aurretik onartutako aurrekontu-partidak ez dira inbertitu.

Hori guztia dela eta, **AIREFek Espainiako gobernuari eskatu dio birplanteatzeko amaitzeko dauden abiadura handiko lineen 5.654 kilometroak eraikitzeko falta diren 73.000 milioi euroko gastua, adieraziz honez gero 55.888 milioi euro gastatu direla.**

Txosten suntsitzaile honek AHTren aurkako oposizioak urte hauetan guztietan izan dituen tesiak balioztatu besterik ez du egiten. Gaineratu behar da orain arte eraikitako lineen errentagarritasun soziala ezdeusa edo antzemanekin bada, zein izango da orain eraikitzen ari diren lineen errentagarritasuna, erabilera potentzial askoz txikiagoarekin?

Beraz, gobernuari exijitzen diegu erakunde horren gomendioak praktikan jar ditzatela eta **berehala geldi ditzatela Espainiako estatu osoan amaitzeke dauden AHT lanak, Euskal Y-a eta Nafarroako korridorea barne**. Bi kasuetan, egiteko dagoen gastua orain arte xahututakoa baino handiagoa da, batez ere Nafarroako kasuan, obrak hasi besterik ez baitira egin.

**Uste dugu garaia iritsi dela inora ez doan lasterketa zoro honetan arrazionaltasun-dosi txiki bat ezartzeko. Hitzetatik ekintzetara pasatzeko ordua heldu da. Aski da! lurraldea suntsitzen jarraitzeari eta gastu sozialetarako inoiz baino beharrezkoagoa den kapitala xahutzeari utzi!**

Arrazoigabekeria handi honen aurrean, Euskal Herrian abiadura handiko proiektu guztiak salatzen jarraitzeko deia egiten dugu, behin betiko gelditzea lortu arte.

AHT GELDITU! NAFARROA

[http://noaltavahtgelditu.blogspot.com /](http://noaltavahtgelditu.blogspot.com/)

## **NUEVO VARAPALO A LA RED DE TAV DEL ESTADO ESPAÑOL**

Tras los dos informes desfavorables del Tribunal de Cuentas Europeo al TAV español en general y a la Y vasca en particular, llega este espectacular nuevo mazazo emitido esta vez por un organismo español, **el AIREF (Autoridad Independiente de Responsabilidad Fiscal)**.

Este organismo advierte de que las líneas de TAV en el estado español suponen la red más extensa de alta velocidad del mundo después de China teniendo al mismo tiempo una de las intensidades de uso más bajas. Además, indica que con la construcción del TAV no se observa mayor cohesión social, aumentan las disparidades territoriales y que los beneficios sociales que genera, nulos o inapreciables, no compensan los ingentes costes fijos de construcción. Además de esto, denuncia que se está realizando sin tener en cuenta las necesidades de movilidad de la población, que se han inflado las cifras de potenciales viajeros y que se han previsto los costes de construcción a la baja. Y para concluir, critica que paralelamente los servicios de cercanías utilizados por más del 90 % de los usuarios de tren se han dotado a lo largo de todos estos años de muy escasa inversión destacando muchos casos en los que no se han llegado a invertir las partidas presupuestarias previamente aprobadas.

Por todo ello, **el AIREF pide al gobierno español replantear el gasto de 73.000 millones de € que faltan por invertir para construir los 5.654 km. de líneas de alta velocidad pendientes de finalización**, indicando que a día de hoy ya se llevan gastados 55.888 millones de euros.

Este demoledor informe no hace más que validar las tesis que ha venido manteniendo la oposición al TAV durante todos estos años. Hay que añadir que si la rentabilidad social de las líneas construidas hasta la fecha era nula o inapreciable ¿cuál será la de las líneas que están construyéndose ahora, con una potencial utilización mucho menor?

Por tanto, exigimos a los diferentes gobiernos que se ponga en práctica las recomendaciones de este organismo y **que se paralicen inmediatamente las obras de TAV que quedan por finalizar en todo el estado español, incluidas la Y vasca y el corredor navarro**. En los dos casos es mayor el gasto que queda por realizar que el ya despilfarrado hasta la fecha, sobre todo en el caso navarro donde las obras no han hecho más que comenzar.

**Creemos que ha llegado el momento de imponer una mínima dosis de racionalidad en esta alocada carrera a ninguna parte. Es hora de pasar de las palabras a los hechos. Basta de seguir destruyendo el territorio y de dilapidar un capital más necesario que nunca para gasto social.**

Ante tamaña irracionalidad hacemos un llamamiento a seguir denunciando todos los proyectos de alta velocidad en Euskal Herria hasta conseguir su paralización definitiva.

AHT GELDITU! NAFARROA

<http://noaltavahtgelditu.blogspot.com/>